


ZAKILIXUT

© Olariagak



Baionako portuaren urtea

■ Urte osoan erakusketak eta ekitaldi ugari izanen dira haren inguruan

AURTEN Baionak portuaren urtea ospatuko du, Jean Grenet auzapezak adierazi duenaren arabera portuak garrantzi handia duelako hirian, garapen ekonomikoari dagokionez bereziki. Gainera, Merkataritza eta Industria Ganbera eskertu du, portuaren bultzatzeak duen «interes handia» ulertu delako. Portuaren urtearen kariatara, ekitaldi ugari izanen da, guti edo aski portuaren gaiari lotuak. Apirilaren 30a arte, argazki lehiaketa batean parte har daiteke. Gaia, noski, portua da. Hiru kategoria badira: profesionalentzat, 13 urtez gorako amaturrentzat eta 13 urtez beherako haurrentzat.

Ondoko hitzordu nagusia apirilaren 16an eta 17an iraganen da, Baionako portuaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aipagai izanen dituen kongresua egingen baita Merkataritza eta Industria Ganberan. Raquel Garcia Arancon Nafarroako Unibertsitateko irakasleak 1242tik 1274 bitarteko Baiona eta Nafarroako erresuma aztertuko ditu. 1420tik 1578ra portuak izan zuten itzalgunea eta haren ondorioak ere aztertuko dituzte, baita oroitze ere Baionak Landesetako portuaren funtzioa bete zuela XVIII. mendean, beste hainbat ikuspegi historikoren artean. Etorkizunari buruz Baio-



BOB EDME

nako portuarentzat aurreikusten diren estrategiak agertuko dituzte bigarren egunean.

Erakusketaz erakusketa

Erakusketa andana bat antolatuko dute, eta horietarik lehena Euskal Erakustokian estreñaituko da, ekainaren 15ean. Barkuak, maketak eta Baionaren ikuspegi panoramikoa izanen dira erakusketa horren ardatz nagusiak. Irailetik aitzina, portuaren historiari buruzko erakusketa ezarriko dute Merkataritza Ganberan: alde batetik, erromatarren garaitik orain arteko historia aipatuko dute; bestetik, Baionako portuaren ibilmoldea eta ofizioak aurkeztuko dituzte; eta, azkenik, etorkizunari begira portuak beteko duen pisu ekonomikoa eta dituen proiektuak erakutsiko dituzte. Historia naturalen erakustokiak, berriz, nahiko erakusketa berezia eskainiko du udazkenetik aurrera. Portua sa-

Baionako portuak hiriaren garapenean duen garrantzia azpimarratzea du helburu urte osorako prestatu den egitarau zabalak.

rrera gisa aurkeztuz, garai bateko espedizioetatik ekarri landare edo abereak aurkeztuko dituzte. Espedizio horiek egin zituzten itsasgizonak izanen dituzte aipagai, hitzaldi, film eta bisiten bitartez.

Udan, Atalante zinema gelak ekitaldi berezia eskainiko du portuaren hegian, kanpoan egingen baitu film emanaldi bat, portuaren urtearen kariatara: *Le Corsaire Rouge* filma ikusten ahalko da. Film ospetsu hori Burt Lancaster-ekilakoa da. Ez da lehen urtea horrelako proiektzioak egiten dituen Atalante zinemak, baina bai portuan izanen den lehen aldia.

Lehiaketekin hasi eta lehiaketekin bukatzeko, margolaritza eta marrazki lehiaketak izanen dira udazkenean. Lehenaren helburua kreaio artistikoaren bultzatzea da; bigarrena, berriz, Baionako haurrei zuzendua zaie.

Eneko Bidegain

BAIONA

kasu!

► 2.500 kilo txakur kaka

Bazter guztiak daude txakur kakaz beteta. Lasai ederrean paseoan zabiltzala, plast! horietako bat zapaltzea baino gauza nazkagarriagorik ez dago. Bada, Gasteizen hori gertatzeko arriskua oso da handia, aste bakar batean garbitzaileek 2.500 kilo txakur kaka bildu izan baitute. Egoera hori konpondu nahirik, Udalak kanpaina zorrotza jarriko du martxan: indarrean den araudiaren berri ematen duten eskuorriak banatuko ditu, eta, gero, kakak jasotzeko zorro bereziak banatuko ditu. Hala egin ezean, isun gogorrek jarriko dizkiete txakur-jabeei.

► Zikoinei ongi etorria

Udazkena eta negua Afrika epelean igaro ostean, zikoinak itzuli dira jada gure artara. Iruñeko San Frantzisko elizako dorrean, esate baterako, jada egin dute euren habia. Haien jarduera gertutik ikusi ahal izateko Gurelur talde ekologistak behatokia jarriko du bihartik aurrera Blanka Nafarroakoaren enparantzaren.

► Garagardoak hainbat gaitzen arriskua gutxitzen du

Espainiako Elikagaien Teknologiaren Institutuak egingako azterketaren arabera, garagardoa ona da hainbat gaitz prebenitzeko, besteak beste, anemia, koloneko minbizia eta kolesterola. Institutu horrek dioenez, garagardoak B taldeko bitamina ugari ditu, baita fosforo eta silizio mineralak ere.

Apirilean Baionako portuaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aipagai izanen dituen kongresua egingen da